| | |
|---|---|
| **ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE MEDIO AMBIENTE<br>(25.03.15)** | **INGURUMENEKO TOKIKO FOROAREN BILERAREN AKTA<br>(15.03.25)** |
| CONCEJAL DE MEDIO AMBIENTE:<br>Dª. KELTSE EIGUREN. | INGURUMEN ZINEGOTZIA:<br>KELTSE EIGUREN andrea. |
| TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:<br>D. JOSU ATEKA | INGURUMEN TEKNIKARIA:<br>JOSU ATEKA jauna |
| SECRETARIA DEL FORO:<br>Dª. ARANTZA CABEZA. | FOROAREN IDAZKARIA:<br>ARANTZA CABEZA andrea. |
| CONSULTOR MEDIOAMBIENTAL:<br>D. JULEN REKONDO (Ingurune) | INGURUMEN AHOLKULARIA:<br>JULEN REKONDO jauna (Ingurune) |
| ASISTENTES: | BERTARATU DIRA: |
| D. CARLOS ARANA (Representante de Sarekide).<br>Dª. CELIA MARAÑON (Ekologistak Martxan).<br>D. DIMAS RAMOS (Representante de Asociaciones Deportivas)<br>D. KOLDO NABASKUES (Asociación de Consumidores URKOA).<br>D. XABI BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente). | CARLOS ARANA jauna (Sarekideren ordezkaria).<br>CELIA MARAÑON andrea (Ekologistak Martxan).<br>DIMAS RAMOS jauna (Kirol Elkarteen ordezkaria)<br>KOLDO NABASKUES jauna (URKOA Kontsumitzaileen Elkartea).<br>XABI BUENETXEA jauna (Ingurumen arloan izen handiko pertsona). |
| Excusan su no asistencia, D. JAVIER GALÁN (Presidente de Getxo Enpresa), Dª. AGURTZANE OLAIZ EGURROLA (Agenda Escolar 21 y profesora del Colegio Romo), Dª AMELIA ZORRILLA (Representante de Basozaleak), D. MIGUEL ANGEL ROGGERO (Itxartu Taldea) y Dª NATIVIDAD MORALES (Representante de la Asociación Gizatiar). | JAVIER GALÁN jaunak (Getxo Enpresako presidentea), AGURTZANE OLAIZ EGURROLA andreak (21 Eskola Agenda eta Romo ikastetxeko irakaslea), AMELIA ZORRILLA andreak (Basozaleak-en ordezkaria), MIGUEL ANGEL ROGGERO jaunak (Itxartu Taldea) eta NATIVIDAD MORALES andreak (Gizatiar Elkartearen ordezkaria) ez bertaratzea desenkusatu dute. |
| En Getxo, a 25 de marzo de 2015. Se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados. | Getxon, 2015eko martxoaren 25ean. Egun horretako arratsaldeko zazpietan Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa bildu da, aipatutako batzarkideak bertan direla. |
| **ORDEN DEL DÍA** | **GAI-ZERRENDA** |
| **1. Aprobación del acta correspondiente a la reunión del Foro Local de Medio Ambiente celebrada el 18 de febrero de 2015.** | 1. **2015eko otsailaren 18an Ingurumeneko Tokiko Foroak egindako bileraren akta** onartzea. |
| D Julen Rekondo ante la indicación previa que le había planteado D. Koldo Nabaskues de que en dicha acta aparecía mal puesto su apellido, reconoce su error y comenta que se rectifica. | Koldo Nabaskues jaunak aktan bere abizena txarto idatzita ageri zela adierazi zion aldez aurretik Julen Rekondo jaunari, eta azken horrek bere akatsa aitortu eta zuzendu egin dela esan du. |
| Por lo demás, el acta se aprueba por unanimidad. | Osterantzean, akta aho batez onartu da. |
| **2. Evolución de los indicadores de sostenibilidad local de Getxo en el período 2006-2014.** | 2. **Getxoko tokiko iraunkortasunaren indizeen garapena 2006-2014 denbora-tartean.** |
| D. Julen Rekondo informa que la anterior evolución de | Julen Rekondo jaunak esan du Getxoko tokiko |

| | |
|---|---|
| los indicadores de sostenibilidad local de Getxo se hizo en el período 2006-2012, y que ahora se había hecho hasta el año 2014. | iraunkortasunaren indizeen aurreko garapena 2006-2012 denbora-tartean egin zela, eta orain 2014. urtera arte egin dela. |
| Como se va a exponer en la web municipal dicha evolución, en el acta sólo se recogen algunos comentarios que se hacen en relación con los indicadores. | Aipatutako garapena Udalaren web gunean erakutsiko denez, indizeen gainean egindako iruzkin batzuk bakarrik jaso dira aktan. |
| D. Julen Rekondo va comentando la evolución de cada uno de los indicadores a través de una presentación en power point. | Julen Rekondo jaunak indize bakoitzaren garapena azaldu du power point aurkezpen baten bidez. |
| En lo que respecta, al Subindicador "Viviendas conectadas al saneamiento", D. Koldo Nabaskues pregunta a qué se debe la subida realizada entre los años 2012 y 2013 al pasar del 95% al 98,2%. D. Josu Ateka informa que probablemente se deba a la conexión de la zona de La Galea al saneamiento. | "Saneamenduari konektatutako etxebizitzak" azpiindizeari dagokionez, Koldo Nabaskues jaunak galdetu du zer dela eta igo zen 2012 eta 2013 urteen bitartean % 95etik % 98,2ra. Josu Ateka jaunak esan du ziur asko Galeako zona saneamenduari konektatzeagatik izan zela. |
| En cuanto al indicador de Calidad del Aire, aunque se puede considerar por los datos obtenidos en el período 2006-2014 que indican que el estado del aire atmosférico está calificado entre muy bueno y bueno, desde el Área de Medio Ambiente se plantea que se podría invitar para la próxima reunión del Foro a celebrar en el mes de abril, a algún técnico del Servicio de Aire del Gobierno Vasco con el objeto de informar de las siguientes cuestiones: 1. Reestructuración realizada por la Dirección del Servicio de Aire en relación con las estaciones de la Red de Calidad del Aire en el municipio de Getxo; 2. Cómo se puede caracterizar la calidad del aire atmosférico en un municipio; y 3. El estado de la calidad del aire en Getxo en los últimos años. | Airearen Kalitatearen indizeari dagokionez, 2006-2014 denbora-tartean jasotako datuak kontuan hartuta, aire atmosferikoaren egoera oso onatzat eta onatzat jo badaiteke ere, Ingurumen Sailak proposatu du apirilean egingo den Foroaren hurrengo bilerara Eusko Jaurlaritzaren Aire Zerbitzuaren teknikariren bat gonbidatzea datozen gaiei buruz informatzeko helburuarekin: 1. Getxoko udalerrian Aire Zerbitzuaren Zuzendaritzak egindako berregituratzea Aire Kalitatearen Sareko estazioak direla eta; 2. Nola bereizi daiteke aire atmosferikoaren kalitatea udalerri batean; eta 3. Airearen kalitatearen egoera Getxon azken urteetan. |
| Y D. Julen Rekondo pregunta a l@s asistentes que les parece la propuesta. D. Koldo Nabaskues responde que si la calidad del aire es buena, no cree muy necesaria dedicar una sesión a ello. Por su parte, D. Celia Marañón comenta que a ella le parece bien. Al final, queda en manos del Área de Medio Ambiente darle una vuelta más a la propuesta, o ver si hay algún otro tema de interés para tratar en la próxima reunión, que será la última de la presente legislatura. | Eta Julen Rekondo jaunak bilerara bertaratu direnei proposamena zer iruditu zaien galdetu die. Koldo Nabaskues jaunak erantzun du ez duela uste oso beharrezkoa denik bilera bat horretara ematea airearen kalitatea ona bada. Bestalde, Celia Marañón andreak berari ondo iruditzen zaiola esan du. Azkenean, Ingurumen Sailaren esku geratzen da proposamenari beste buelta bat ematea, edo ikusi badagoen intereseko beste gairen bat oraingo legealdiko azken bilera izango den hurrengo bileran jorratzeko. |
| En el indicador de Educación Ambiental, pero relativo al subindicador de "Participantes en la Agenda Escolar", D. Julen Rekondo comenta que en el año 2014 ha habido una disminución en la participación de alumn@s y pregunta a que puede ser debido si el nº de centros educativos ha aumentado en los últimos años. Como a la reunión no han podido acudir ninguno de los dos representantes de la Agenda Escolar 21, queda la respuesta pospuesta a la siguiente reunión. | Ingurumen Hezkunza indizean, baina "Eskola Agendako Parte-hartzaileak" azpiindizeari dagokionez, Julen Rekondo jaunak esan du 2014. urtean ikasle gutxiagok parte hartu dutela eta zer dela eta izan daitekeen hori galdetu du; izan ere, azken urteetan hezkuntza zentroen kopurua igo egin da. Eskola Agenda 21en bi ordezkarietako bat ere ezin izan denez bilerara bertaratu, erantzuna hurrengo bilerarako utzi da. |
| En el subindicador de Suelos Potencialmente Contaminados, que suman un total de 147.000 metros cuadrados en 2012, D. Koldo Nabaskues pregunta de qué suelos se tratan. D. Josu Ateka primero responde que cuando se habla de suelos potencialmente contaminados no quiere decir que estén contaminados. Quiere decir que han podido albergar alguna actividad | Potentzialki Kutsatutako Lurzoruen azpiindizeari dagokionez, Koldo Nabaskues jaunak galdetu du zein lurzoruri egiten zaion erreferentzia izendapen horrekin. Josu Atekak lehenengo erantzun du potentzialki kutsatutako lurzoruez hitz egiten denean, ez dela adierazi nahi kutsatuta daudela. Adierazi nahi da lurzoru horietan izan dela ekintzaren bat lurzorua |

| | |
|---|---|
| que ha podido contaminar el suelo o no. Por otra parte, en la actualidad existe un inventario realizado por IHOBE que puede cambiar ese dato, pero que por el momento no lo dispone el Ayuntamiento. En esa superficie está el antiguo vertedero y algunas otras zonas que no han tenido por el momento cambios en el uso de suelo, u otros espacios que incluso se ha edificado en ellos, ya que no tienen ya la clasificación de suelos potencialmente contaminado. | kutsatu ahal izan duena edo ez. Bestalde, esan du egun existitzen dela IHOBEk egindako inbentario bat datu hori alda dezakeena, baina oraingoz Udalak ez daukana. Guztira, potentzialki kutsatutako 147.000 metro karratu lurzoru zenbatu ziren 2012an, eta azalera horretan zabortegi zaharra dago eta lurzoruaren erabileran oraingoz aldaketarik jasan ez duten beste zona batzuk, edo beste eremu batzuk non eraikinak altxatu diren; izan ere, ez dute jada ez dira sailkatzen potentzialki kutsatutako lurzoru gisa. |
| En el indicador de Consumo Energético, D. Koldo Nabaskues pregunta por el consumo energético que hay en las instalaciones municipales. D. Julen Rekondo le responde que ese dato existe, pero que no se ha incluido en la presentación. D. Koldo Nabaskudes propone que ese consumo energético municipal se incluya como subindicador. Se acepta. | Kontsumo Energetikoaren indizean, Koldo Nabaskues jaunak udal instalazioetan dagoen kontsumo energetikoari buruz galdetu du. Julen Rekondo jaunak erantzun dio datu hori existitzen dela, baina ez dela aurkezpenean jaso. Koldo Nabaskues jaunak proposatu du udal kontsumo energetiko hori azpiindize gisa gehitzea. Onartu egin da. |
| En el indicador de Energías Renovables, D. Koldo Nabaskues pregunta si no hay datos de los edificios y equipamientos municipales que disponen de energías renovables. D. Julen Rekondo le responde que si ha hay algunos edificios municipales, como la Oficina de Turismo de Getxo, que dispone de geotermia. Pero que ese dato se podría pedir al EVE. D. Koldo Nabaskues propone que se incluya este subindicador. Se acepta. | Energia Berriztagarrien indizean, Koldo Nabaskues jaunak galdetu du ea ez dagoen daturik energia berriztagarriak dituzten udal eraikin eta ekipamenduei buruz. Julen Rekondo jaunak erantzun dio badaudela udal eraikin batzuk, Getxoko Turismo Bulegoa adibidez, geotermia duena. Baina datu hori EEEri eskatu ahalko litzaiokeela. Koldo Nabaskues jaunak proposatzen du azpiindize hau gehitzea. Onartu egin da. |
| También D. Koldo Nabaskues pregunta si el Ayuntamiento se ha adherido a la Energía Verde, es decir, a empresas que suministran enteramente energía procedente de energías renovables, como la Cooperativa Goiener, de la que informó en alguna reunión. Se le responde que no. | Koldo Nabaskues jaunak halaber galdetu du ea udala Energia Berdeko kide egin den. Energia Berdea energia berriztagarrietatik datorren energia bakarrik ematen duten enpresek osatzen dute, Goiener Kooperatibak adibidez, zeinari buruz hitz egin zuen beste bileraren batean. Ezetz erantzun zaio. |
| D. Koldo Nabaskues, al igual que en otras reuniones en las que se ha tratado el tema de los indicadores, considera que es necesario establecer unos indicadores que permitan conocer los niveles de contaminación electromagnética y su evolución. | Indizeen gaia jorratu den beste bilera batzuetan bezala, Koldo Nabaskues jaunak esan du bere ustez beharrezkoa dela kutsadura elektromagnetikoaren mailak eta bere garapena ezagutzea ahalbidetzen duten indize batzuk ezartzea. |
| Por su parte, D. Dimas Ramos pregunta si las personas de movilidad reducida, que disponen de la OTA y pueden aparcar en alguna de las 342 plazas de discapacitados que existen en el municipio, pagan la OTA. Considera que deberían de hacerlo si disponen de recursos económicos suficientes. D. Keltse Eiguren responde que en Getxo no está establecido así, y por tanto no pagan. | Bestalde, Dimas Ramos jaunak galdetu du ea TAO ordaintzen duten mugikortasun urriko pertsonek, zeinek TAO duten eta udalerrian minusbaliatuentzat dauden 342 aparkalekuetan aparkatu ahal duten. Bere ustez, TAO ordaindu beharko lukete mugikortasun urriko pertsonek baliabide ekonomiko nahiko izanez gero. Keltse Eiguren andreak erantzun du Getxon ez dagoela horrela ezarrita, eta, beraz, ez dutela ordaintzen. |
| Finalmente, D. Xabi Buenetxea plantea que para otra reunión se podría abordar el tema de los indicadores de biodiversidad y medio natural, que ya se hizo hace unos años. Tanto D. Josu Ateka como D. Julen Rekondo consideran que habría que establecer algunos subindicadores en este ámbito, aunque en el caso de los indicadores de Udalsarea 21 sólo se utlizan al respecto el de superficie protegida, que ya está | Azkenik, Xabi Buenetxea jaunak esan du beste bilera batean biodibertsitatearen eta ingurune naturalaren indizeen gaiari heldu ahalko litzatekeela, duela urte batzuk egin zen bezala. Bai Josu Ateka jaunak bai Julen Rekondo jaunak uste dute eremu horretan azpiindize batzuk ezarri beharko liratekeela, nahiz eta Udalsarea 21en indizeen kasuan bakarrik erabiltzen diren babestutako azalerarena, Getxokoen artean jasota |

| | |
|---|---|
| includio en los de Getxo, y alguno más, como zonas verdes. | dagoena dagoeneko, eta besteren bat, zona berdeak adibidez. |
| **Ruegos y preguntas**. | **Galde-eskaerak**. |
| Tanto por parte de Dª Celia Marañón como D. Koldo Nabaskues previamente al Foro, como por Dª Natividad Morales, aunque esta última no pudo acudir a la reunión del Foro, habían pedido información sobre la huelga de basuras en el municipio. Concretamente, Dª Celia Marañón señala que el Ayuntamiento debería de actuar en el conflicto, que se alarga y que esté generando muchos problemas de salubridad, y responde que la contrata no está cumliendo con el convenio y que está hablando de despidos. Igualmente, D. Koldo Nabaskues más o menos se pronuncia en términos similares. La concejala de Medio Ambiente, Dª Keltse Eiguren, toma la palabra para trasladar que el Ayuntamiento de Getxo externaliza el servicio de limpieza, dentro de los parámetros recogidos en la Ley de Contratos y esta nueva adjudicación se ha realizado, como no puede ser de otra manera, siguiendo los citados parámetros; En base a los criterios técnicos y económicos recogidos en los pliegos, ha salido adjudicataria una de las empresas, porque ha ganado el concurso. Por la envergadura de este contrato, su cuantia, el responsable y el que lo aprueba, es el propio Pleno Municipal. | Foroaren aurretik, bai Celia Marañón andreak bai Koldo Nabaskues jaunak, bai eta Natividad Morales andreak ere, baina azken hau ezin izan zen Foroaren bilerara bertaratu, eskatu zuten udalerriko zaborren grebari buruzko informazioa. Zehazki, Celia Marañón andreak adierazi du Udalak gatazkan esku hartu beharko lukeela, luzatzen ari baita eta osasun arazo asko sortzen ari baita, eta erantzun du kontrata ez dela ari hitzarmena betetzen eta kaleratzeez hitz egiten ari dela. Koldo Nabaskues jaunak gutxi gorabehera gauza berbera esan du. Ingurumen zinegotziak, Keltse Eiguren andreak, hitza hartu du eta esan du Getxoko Udalak garbiketa zerbitzua udaletik kanpoko enpresa bati esleitzen diola, Kontratuen Legean jasotako parametroen barruan, eta esleipen berri hau egin dela aipatutako parametroei jarraituta, hala egin behar baita; orrietan jasotako irizpide teknikoak eta ekonomikoak kontuan hartuta, enpresetako bat izan da esleipenduna; izan ere, lehiaketa irabazi du. Kontratu honen garrantzia dela eta, kontratuaren zenbatekoa, arduraduna eta onartzen duena Udalbatza bera da. |
| El Ayuntamiento lo único que puede hacer es insistir e intentar que las dos partes -la empresa y los trabajadores- se reúnan y se sienten a negociar, para llegar a un acuerdo pero desde la primera reunión, hasta hoy, no se han vuelto a reunir El Ayuntamiento no puede recoger la basura de las calles, lo único que puede hacer es solicitar la intervención del Gobieno Vasco, y denunciar tanto en Inspección de Trabajo como ante el Departamento de Sanidad, los incumplimientos y situaciones ilegales que se detecten., bien por incumplimiento de los servicios mínimos, o porque la situación de salubridad no sea la debida, solicitando que desde las autoridades competentes, antes citadas, se amplien los servicios mínimos o se autoricen la recogidas de basura, ante problemas de salubridad que puedan darse, o se sancionen actuaciones de piquetes…Y que lógicamente en toda esta huelga, la víctima es la ciudadanía getxotarra. Por otra parte, D. Josu Ateka comenta que los trabajadores no firmaron el convenio, hace dos años decidieron no hacerlo, añade que la empresa no va a despedir a nadie, sino que lo que va a hacer es redistribuir a trabajadores en distintos turnos. Por ejemplo, si la recogida no se va a hacer de noche, por los perjuicios que puede ocasionar a l@s vecin@s, tendrá que pasar trabajadores de ese turno a horario diurno, etc. Eso lógicamente, puede acarrear una disminución en el salario. | Udalak egin dezakeen bakarra da ekin eta ekin, eta saiatu bi aldeak -enpresa eta langileak- biltzea eta negoziatzeko esertzea, akordio batera heltzeko, baina lehenengo bileratik gaur arte ez dira berriz bildu. Udalak ezin du kaleetatik zaborra jaso, egin dezakeen bakarra da Eusko Jaurlaritzaren esku-hartzea eskatu, eta antzematen diren hausteak eta egoera ilegalak, bai gutxieneko zerbitzuak ez betetzeagatik edo osasun egoera behar bezalakoa ez delako, bai Laneko Ikuskatzailetzan bai Osasun Sailean salatu, eta eskatu aipatutako autoritateei, zeinei dagokien esku hartzea, gutxieneko zerbitzuak hedatzea edo zaborrak biltzea baimentzea izan daitezkeen osasun egoeren aurrean edo piketeen ekintzak zigortzea… Eta logikoki greba honen biktimak getxotarrak dira. Bestalde, Josu Ateka jaunak esan du langileek ez zutela hitzarmena sinatu, duela bi urte ez sinatzea erabaki zutela; gaineratu du enpresak ez duela inor kaleratuko, egingo duena da langileak txanda desberdinetan birbanatu. Adibidez, bilketa gauez egingo ez bada, auzokoei eragin ahal dien kalteengatik, txanda horretako langileak goizeko ordutegira pasatu behako ditu, etab. Horrek, logikoki, soldata jaistea ekar dezake. |
| Por otra parte, D. Dimas Ramos, al igual que D. Koldo Nabaskues, comentan que los vecinos y vecinas están recibiendo una información muy diferente a la que están trasladando tanto Dª Keltse Eiguren como D. | Bestalde, Dimas Ramos jaunak eta Koldo Nabaskues jaunak esan dute auzokoak jasotzen ari diren informazioa oso desberdina dela bai Keltse Eiguren andreak bai Josu Ateka jaunak zabaltzen ari diren |

| | |
|---|---|
| Josu Ateka, y piden que el Ayuntamiento salga al paso de tantos bulos que se están dando, mediante una política informativa más veraz, amplia y permanente. Dª Keltse Eiguren recoge esa propuesta y responde que ya la traladará al Equipo de Gobierno. | informaziotik, eta eskatu dute Udalak hainbeste gezurretatik libratzea egiazkoagoa, zabalagoa eta iraunkorragoa den informazio politika baten bidez. Keltse Eiguren andreak proposamena jaso du eta erantzun du Gobernu Taldeari helaraziko diola. |
| Por su parte, D. Xabi Buenetxea cambia totalmente de tema, y pregunta si el Aula Ambiental se va a abrir, ya que es una pena que se haya cerrado teniendo en cuenta el éxito de visitantes que tenía. Dª Keltse Eiguren rersponde, como lo hizo en una anterior reunón, que es un tema que tendrá que habrá que estudiar de cara al próximo curso, ya que en base a la nueva adjudicación está recogida una mejora que, a la vista de lo que ofrece y lo que no está incluido y por tanto habría que adjudicar, hay que estudiarlo, pero antes de 2016 no podrá ser, ya que si se aprueba su reapertura, se deberá aprobar una partida económca en los presupuestos de 2016. | Bestalde, Xabi Buenetxea jaunak gaiz aldatu du erabat eta galdetu du ea Ingurumen Gela zabalduko den, pena baita itxi izana kontuan hartuta zituen bisitari kopuru handia. Keltse Eiguren andreak erantzun du, aurreko bilera batean egin bezala, datorren kurtsoari begira aztertu beharko duen gai bat dela; izan ere, esleipen berriaren arabera izango da hobekuntza bat, zeina aztertu beharko den kontuan hartuta zer jasotzen duen eta zer ez duen jasotzen eta, beraz, zer esleitu beharko litzatekeen, baina 2016a baino lehen ezin izango da aztertu; izan ere, gela berriz zabaltzea onartzen bada, 2016ko aurrekontuetan partida ekonomiko bat onartu beharko da. |
| Después del tema de basuras, D. Koldo Nabaskues pregunta si el Ayuntamiento dispone de un plan de Inspección Técnica de Viviendas. J. Josu Ateka responde que es un tema que está por así decirlo encima de la mesa. | Zaborren gaiaren ondoren, Koldo Nabaskues jaunak galdetu du ea Udalak Etxebizitzen Ikuskatze Teknikoko planik duen. J. Josu Atekak erantzun du, nolabait esatearren, mahai gainean dagoen gai bat dela. |
| También propone potenciar productores de energía verde y su consumo desde el Ayuntamiento. | Halaber proposatu du energia berdearen ekoizleak eta horren kontsumoa bultzatzea Udaletik. |
| Asimismo propone indicadores permanentes de emisiones de ondas electromagnéticas . ( Entiende preocupante la noticia de una empresa de telefonía de crear 125.000 puntos emisores de Wifi, desde el móvil) | Gainera, uhin elektromagnetikoen isurtzeen indize iraunkorrak proposatu ditu. (Kezkagarria iruditu zaio telefonia enpresa batek mugikorretik Wifia igortzen duten 125.000 puntu sortuko dituela dioen albistea) |
| No hay más asuntos que tratar, y se acuerda celebrar la próxima reunión el día el 29 de abril. | Ez dago gai gehiago eta hurrengo bilera apirilaren 29an egitea adostu da. |
| En Getxo, a las 21,00 horas se da por finalizada la reunión. | Getxon, 21,00etan bilera amaitutzat jo da. |